HERRERA HUPE-EKO ETA ERRENTERIA HUPE-KO PONPAKETEN BULKADA ORDEZTU ETA BERRITZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Donostian, 2024ko maiatzaren 31

HERRERA HUPE-EKO ETA ERRENTERIA HUPE-KO PONPAKETEN BULKADA ORDEZTU ETA BERRITZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1 Aurrekariak 1

2 Kontratuaren xedea 1

3 Horniduraren irismena 1

3.1 Herrera HUPE 1

3.1.1 AUSAk egingo dituen lanak 1

3.1.2 Esleipendunak egingo dituen lanak 2

3.2 Errenteria HUPE 2

3.2.1 AUSAk egingo dituen lanak 2

3.2.2 Esleipendunak egingo dituen lanak 2

4 Hornitu eta instalatu behar diren materialen ezaugarriak 2

4.1 Herrera HUPE 2

4.2 Errenteria HUPE 3

5 Egingo diren lanen deskribapena 3

5.1 Herrera HUPE 3

5.2 Errenteria HUPE 4

6 Segurtasun eta osasuna 4

7 Enpresa kontratistak obra gauzatzen hasi aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa 5

8 Enpresa kontratistak obra gauzatu ondoren aurkeztu beharreko dokumentazioa 5

HERRERA HUPE-EKO ETA ERRENTERIA HUPE-KO PONPAKETEN BULKADA ORDEZTU ETA BERRITZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1 Aurrekariak

Herrera HUPE 1997an jarri zen martxan. Hasiera batean, estazioa Oiartzun, Errenteria, Pasaia, Herrera, San Pedro, Trintxerpe eta Altzako hondakin-urak itsasorantz bideratzeko sortu zen; baina, gaur egun, emari horiek grabitatez iristen dira Loiolako HUAra eta, Herrera HUPEak, euri asko egiten duen garaian araztegiak jaso ezin dituen soberakinak itsasoratzeko gainezkabide gisa funtzionatzen du.

Herrera HUPEak bi putzu ditu eta bakoitzean, 6 mm-ko tartea edo igarobidea duen solido lodien arbastu bat eta lau ponpa daude. Hiru ponpa 800 l/s husteko diseinatuta daude, 180 kW-ko potentziarekin eta, bestea, 390 l/s 90 kW-ko potentziarekin.

Bestalde, Errenteria HUPE 1996. urtean jarri zen martxan eta Oiartzun ibaiaren bi aldeetako kolektoreetatik datozen hondakin-urak ponpatzen ditu Loiolako HUArantz, baita Lezo eta Donibaneko HUPEetatik datozen emariak ere. 14 mm-ko pasabideko solido lodien arbastu bat eta 400 l/s-ko emari nominala duten 55 kW-ko potentziako lau ponpa daude bertan.

Kontratu honen xedean aurreikusten diren jarduketak hauek dira: Herrera HUPEko zortzi ponpen bulkadak ordeztea; eta Errenteria HUPEko 2. eta 4. ponpen bulkadak ordeztea eta ponpa guztien zokaloak berritzea, Baldintza Teknikoen Agirian, Administrazio Baldintza Berezien Agirian eta honen Karatulan xedatzen denaren arabera.

2 Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea da: Herrerako HUPEko ponpetarako zortzi bulkada-hodi multzo hornitzea, muntatzea eta zerbitzuan jartzea; eta Errenteria HUPEko ponpetarako bi bulkada-hodi multzo eta lau zokalo hornitu, muntatu eta martxan jartzea, bi kasuetan dagozkien osagarriekin.

3 Horniduraren irismena

3.1 Herrera HUPE

3.1.1 AUSAk egingo dituen lanak

- Ponpaketa-putzuak hustu.
- Putzuak isolatu.
- Ponpaketa-putzuak garbitu.
- Ponpaketa-putzuak bete.
- Lanak putzu batean egingo dira, beste putzua operatibo mantenduz.

3.1.2 Esleipendunak egingo dituen lanak

- Bulkada hodiak eta osagaien 8 ekipo hornitu, muntatu eta zerbitzuan jarri, agiri honetako 4. Klausulan deskribatzen denaren arabera.
- Hodiak, euskarriak, gida-hodiak eta abar behar bezala muntatzeko behar diren elementu osagarri guztiak hornitu.
- Karga, garraioa eta deskarga Herrera HUPEn.
- Erretiratuko diren materialak ateratze eta kudeaketa.
- Kontratuaren xedea gauzatzeko behar diren baliabideak jarri (aldamioak, garabiak, eta abar).
- Babes eta segurtasun baliabideak.

3.2 Errenteria HUPE

3.2.1 AUSAk egingo dituen lanak

- Ponpaketa-putzua hustu
- Ponpaketa-putzua garbitu
- Ponpaketa-putzuko bypass-a martxan jarri
- Ponpaketa-putzua bete

3.2.2 Esleipendunak egingo dituen lanak

- Bulkada hodiak eta osagaien 2 unitate hornitu, muntatu eta zerbitzuan jarri, 2. eta 4. ponpetan.
- Goiko euskarria eta gida-hodien 4 unitate hornitu, muntatu eta zerbitzuan jarri, 1., 2., 3. eta 4. ponpetan.
- Euskarri irristakorren 4 unitate hornitu, muntatu eta zerbitzuan jarri, 1., 2., 3. eta 4. ponpetan.
- Zokalo eta osagarrien 4 unitate hornitu, muntatu eta zerbitzuan jarri, 1., 2., 3. eta 4. ponpetan.
- Hodiak, euskarriak, gida-hodiak, zokaloak eta abar behar bezala muntatzeko behar diren elementu guztien hornidura.
- Karga, garraioa eta deskarga Errenteria HUPEn.
- Erretiratuko diren materialak ateratze eta kudeaketa.
- Kontratuaren xedea gauzatzeko behar diren baliabideak jarri (aldamioak, garabiak, eta abar.
- Babes eta segurtasun baliabideak.

4 Hornitu eta instalatu behar diren materialen ezaugarriak

4.1 Herrera HUPE

Ponpetako (8 dira) hodi metalikoak (bulkada kolektorea) aldatu behar dira AISI 316L altzairu herdoilezin bat jarriko da. Kolektorea neurrira fabrikatuko da, gaur egun Herrera HUPEn existitzen den antolamenduaren arabera.

Hona hemen hornitu eta instalatu behar diren gutxieneko materialen zerrenda:

- 8 unitate 5 mm-ko xafla duen barne-atorra, AISI 316-L altzairu herdoilezina DN-500: 650 mm luzera izango duen atorra fabrikatu, kanpoko diametroa murriztuko duen (510 mm - 490 mm) ukondoarekin, 5 mm lodiera izango duen xafla bat. (Ikusi 1 Eranskina).

- 8 unitate karrete DN-500 x 4 mm, AISI 316-L altzairu herdoilezina: karrete (DN 500) berri bat hornitua (4 mm lodiera eta 4 metroko luzera, brida trinkoa DN-500, ponparen zokalora eta atorrara lotzeko, atorra berriari soldatua. (Ikusi 1 Eranskina).

4.2 Errenteria HUPE

2. eta 4. ponpetako hodi metalikoak (bulkada kolektorea) aldatu behar dira DN 300 galdaragintza plastikozkoa jartzeko (diametro nominala 300 eta PN 10). Kolektorea neurrira fabrikatuko da, gaur egun Errenteria HUPEn existitzen den antolamenduaren arabera. Dentsitate handiko polietilenoa erabiliko da (PE-100) DN 300 PN 10,

Ponpa-putzuan dauden lau ponpetan dauden gida-hodiak eta zokaloak ere aldatu egingo dira.

Hona hemen hornitu eta instalatu behar diren gutxieneko materialen zerrenda:

- 2 unitate polietilenozko hodia (PE-100 DN 300 mm PN 10 SDR 17), 3,3 metroko luzera. Konexio bridatua altzairu herdoilezinera DN 500, murrizketarekin (DN 500-DN 300), AISI 316L altzairu herdoilezinean. (Ikusi 2 eranskina).
- 8 unitate goiko euskarria eta gida-hodia 3” (3 mm lodiera) altzairu herdoilezina AISI 316L (9 metroko luzera).
- 4 brida DN 500 eta altzairu herdoilezinezko tiranteak AISI 316L (gidak gogortzeko).
- 4 zokalo DN 300 (Flygt 6046101).
- 4 Goiko euskarri TG 3” altzairu herdoilezina AISI 316L (Flygt 6615401).
- 4 unitate euskarri (DN 300) altzairu herdoilezina AISI 316L (Flygt 6615401).
- 4 gida-barra euskarri irristagarria 80 mm (Flygt 6073800).
- 16 torloju hexagonal. m16x60-A4-80 (Flygt 830458).

5 Egingo diren lanen deskribapena

5.1 Herrera HUPE

- Xafla-atorra fabrikatu 5 mm, altzairu herdoilezina AISI 316-L DN-500, eskudelaren barrualdean muntatzeko.
- Karrete bat fabrikatu DN-500 AISI 316-L, brida trinkoa ertz batean.
- Bulkada-ukondoa desmuntatu existitzen den hodira iritsi ahal izateko.
- Kaltetua dagoen bulkada-karretea desmuntatu eta erretiratu.
- Putzuaren barruan egungo hodia moztu egin behar da, 15 cm lurzoruaren azpitik, eskudelaren barrualdetik atorra sartu ahal izateko (barrutik kanpora) eta kanpoaldean soldatu.
- Atorrak diametro zabaltzea izango du (490 mm-tik 510 mm-tara), ponpa karrete berriarekin konektatzen duen karretea soldatu ahal izateko.
- Brida ponpara lotu beharko da, eta bulkada-ukondoa eta bentosak muntatu.

Hodiak erabat instalatuak eta konektatuak utzi beharko dira. Horretarako, behar diren zuinketak egingo dira lekuan bertan, beharrezkoak diren baliabide osagarriekin. Lanen irismena izango da: hodia ordeztu, moztu, lekuz aldatu eta materiala erretiratu.

5.2 Errenteria HUPE

2. eta 4. ponpetan:

- Galdaragintza aldatu: ponpetako bulkada-hodiaren lehen metroak moztu eta erretiratu, eta karrete bridatua (PE-100 3,3 metrokoa), bulkada-bridatuaren diametro berdinekoa (DN 300). Existitzen den hodiarekin konexioa DN 500, murrizketa bat soldatuz DN 500-DN 300, eta bridatua.

1.,2.,3. eta 4. ponpetan:

- Gida-hodiak instalatu (3" de diametroa eta 3 mm-ko altzairu herdoilezina AISI 316-L), gutxi gorabehera 9 metroko luzera.
- Zokaloa aldatu eta gidak muntatu: existitzen den zokaloa kendu eta berri jarri. Brida DN-500 fabrikatu eta muntatu (80 x 8 pletina, bulkada-hodira lotuta.
- Euskarri irristagarria eta osagarriak instalatu.

Aldi berean:

- Tapa fabrikatu eta hornitu (1600 zabalera x 1200 altuera), 5 mm-ko xaflarekin, sendotzeko tolesturekin eta torlojutua.

Hoditeriak, gida-hodiak, euskarriak, bridak eta zokaloak erabat instalatuak eta konektatuak geratuko dira. Horretarako, behar diren zuinketak egingo dira lekuan bertan, beharrezkoak diren baliabide osagarriekin. Lanen irismena izango da: hoditeriak, gida-hodiak eta zokaloak ordeztu, moztu, lekuz aldatu eta materiala erretiratu

Hornituak izango diren PE-100 osagarriak, polietileno PE-100 hodien zatietan "*soldadura a tope*" bidez lotuz fabrikatuko dira. Soldadura lanak langile kualifikatuek egin beharko dute, eta hoditeriaren fabrikatzaileak ematen dituen jarraibideak kontuan hartuz, DVS 2207/1 arauan oinarrituak.

Osagarriak fabrikatzeko erabiliko den hodia fabrikatu eta kontrolatuko da UNE EN 12201-2 araua eta *Reglamento de Certificación de Plásticos de la Marca de Calidad* AENOR RP 01.01.ren eskakizunak betetzen. Hoditeria ere ziurtatutako materialekin fabrikatuko da.

6 Segurtasun eta osasuna

Esleipendunaren ardura izango da, bere langileei eta bere azpikontratatuei bete araztea, kontratua sinatzeko garaian Lan Arriskuen Prebentzioan indarrean dauden lege xedapenak, hala nola, jardueraren garapenari aplikagarri zaizkion kontratatzailearen xedapen bereziak, baldintzen agiri honetan agiri osagarrietan eta barne-araudian jasotzen direnak.

Oro har, esleipendunak parte hartuko du segurtasun gaietan AUSAk eskatzen dizkion bilera, bisita eta/edo ikuskapenetan, eta baldintza-agiri honetan exijitzen den

dokumentazio guztiak AUSAren eskuragarri izango du obrak edo zerbitzu-emateak irauten duen bitartean.

Egin behar diren lanen ezaugarri bereziak direla-eta, enpresa ezberdinen koordinazioa egin beharko da, zeren beste enpresa batzuk gauzatzen ari diren beste kontratu batzuetan gertatutakoa ikusirik (AUSAk sustatutako beste lizitazio-prozedura batzuetan esleipendunak izan zirenak), baliteke kontratista batek baino gehiagok eremu edo instalazio berdinak konpartitu beharra. Lanak irauten duten bitartean edukiko diren ingurumen-baldintzei arreta berezia emango zaie. Lanak modu zuzenean gauzatzeko bete behar diren segurtasun eta osasun eta lan-arriskuen prebentzioaren kostu guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

7 Enpresa kontratistak obra gauzatzen hasi aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa

Kontratua sinatzen den egunetik gehienez 15 laneguneko epean, kontratista behartuta dago ondorengo dokumentazioa “pdf” formatu digitalean eta editagarrian entregatuko du, eta agiri guztien ale bat aurkeztuko da paperean eta formatu digitalean.

- Hoditerien ezaugarri teknikoak.
- Kalitate-ziurtagiriak.
- EU ziurtagiriak.
- Fabrikan egin beharreko proben protokoloa.

8 Enpresa kontratistak obra gauzatu ondoren aurkeztu beharreko dokumentazioa


Kontratua sinatzen den egunetik gehienez hilabete bateko (1) epean, kontratista behartuta dago ondorengo dokumentazioa “pdf” formatu digitalean eta editagarrian entregatuko du, eta agiri guztien ale bat aurkeztuko da paperean eta formatu digitalean.

- Hoditerien ezaugarri teknikoak.
- Kalitate-ziurtagiriak.
- EU ziurtagiriak.
- Fabrikan egindako proben ziurtagiria.

1 Eranskina

Herrera HUPEaren erreferentziazko krokisa

ERREFERENTZIAZKO KROKISA (Esleipendunak egiaztatuko ditu "in situ" hoditeriak fabrikatzeko behar diren materialak eta horien dimentsioak



2 Eranskina

Errenteria HUPEren erreferentziazko krokisa

ERREFERENTZIAZKO KROKISA (Esleipendunak egiaztatuko ditu "in situ" hoditeriak fabrikatzeko behar diren materialak eta horien dimentsioak

